

BGC VI BUSINESS GLOBAL CONFERENCE, Berrikuntzak: nork eta nola kongresuan izan dira LADE 4 eta LADE 5eko ikasleak

2007/10/25

Urriaren 24 eta 25ean, Euskalduna Jauregian izan diren BGC VI BUSINESS GLOBAL CONFERENCE kongresuan izan dira Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziaturako 4 eta 5. ikasturteetako ikasleak. Marketing eta Antolakuntza ibilbideetakoak hain zuzen.

Aurtengo gaia, BERRIKUNTZAK: NORK ETA NOLA izan da eta besteak-beste entzun dituzten hizlariak ondokoak izan dira:

- Jeff Sampler Jna. Oxford Unibertsitateko irakalea eta, besteren artean, *Sand to Silicon* liburuaren egilea.
- Luis María Huete Jna. IESE-ko irakaslea eta *Ilusión y beneficios* eta *Construye tu sueño* liburuen egilea.
- Pedro Luis Uriarte Jna. Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidentea.
- Luis Rojas Marcos Jna. New York University-ko Psikiatriako irakaslea eta New York Medikuntza Akademiako kidea.